

Koiuntura di-da batean

2019ko apirila

Aurkibidea

1. BPGaren aurreikuspenak
2. Afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. Sentimendu ekonomikoa
6. ELGEren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,2 haziko da 2019an.

Datorren urtean, BPGa %2,0 handituko dela aurreikusten da.

2. Afiliazioak %1,8aren inguruan egonkortu du bere gehikuntza.

Industriak bere erritmoa moteldu du, eraikuntzak berea areagotu duen bitartean.

3. Langabezia erregistratuaren jaitsiera bizkortu da 2019ko hastapenean.

Jaitsiera kolektibo guztiei egin die mesede, gazteeni izan ezik.

4. Inflazioa hiru hamarren igo zen otsailean.

Erregaiak eta ortuariak daude igoera horren atzean.

5. Europako baikortasuna berriro apaldu da.

Europar Batasuneko ekonomia sentimenduaren indizeak lau hamarren galdu ditu, baina positiboa da oraindik.

6. ELGEk beherantz zuzendu ditu bere ekonomia aurreikuspenak.

Alemania eta Italia dira zuzenketa hori gehien nozitu duten herrialdeetako bi.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK

EAEko ekonomia %2,2 haziko da 2019an

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko eta inguruneke informazio ekonomiko berria argitaratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2019rako ekonomia aurreikuspenak berritu ditu. Hazkunde aurreikuspen eguneratuek seinaltzen dute barne produktu gordinaren hazkunde tasa %2,2an egongo dela 2019an eta zertxobait gutxituko dela datorren urtean, urte horretako hazkundea %2,0an kokatuz. Osagaiak aztertuta, barne eskariaren ekarpena etengabea eta esanguratsua izango da. Aldi berean, kanpo eskariak ekarpen zertxobait negatiboa egingo dio BPGaren hazkundeari bi urteetan. Eskariaren ikuspegitik, azken kontsumoak ezagutuko du moteltze biziena. Aitzitik, kapital eraketa gordinak gehikuntza hedakorra eskuratuko du, enpresek konfiantza erakusten duten inguruneak lagunduta.


Azken kontsumoa

Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzari dagokionez, aurreikuspenek seinalatzen dute jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboa egingo diotela balio erantsiari. Urteko batez bestekoan adierazita, industriaren aldakuntza tasa %1,7an kokatuko da 2019an eta %1,9ra areagotuko da 2020an. Eraikuntzak bere bizitasuna apalduko du, baina sektore dinamikoena izango da. Azkenik, zerbitzuek hazkunde egonkorreko eta iraunkorreko profila markatuko dute.

Enplegu sorrera %1,5ean kokatu da 2019rako eta %1,3an, berriz, 2020rako. Tasa horiek esan nahi dute 14.800 eta 12.500 lanpostu garbi sortuko direla bi urte horietan, hurrenez hurren. Langabezia tasa berriro gutxituko da datozen hiruhilekoetan eta %10,0aren azpian egongo da bi urteetan.

Enplegua Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia tasa Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Afiliazioak %1,8aren inguruan egonkortu du bere gehikuntza

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 hazi zen martxoan, urte arteko tasan. Balio hori aurreko bien antzekoa da. Horri esker, 2019ko lehen hiruhilekoaren batez besteko gehikuntza ere %1,8an kokatu da. Guztira, martxoan 960.275 afiliatu zeuden, hots, 2017ko martxoan zeudenak baino 12.555 gehiago. Estatistika horrek BPGarena baino bilakaera egonkorragoa izan du, baina moteltzeko joera leuna ere ezagutu du, hiruhileko bakoitzean hamarren bat inguru galduta. Hazkundera biziagoa da emakumeen artean, martxoan %2,0ko eta hiruhilekoan %2,1eko hazkundera lortuta, gizonak bi epealdietan %1,6ko igoera eskuratu duten bitartean. Afiliatuta dauden pertsona guztietatik %47,2 emakumeak dira.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen analisiak erakusten du industriaren enplegua gehikuntza txikiagoko fase batean sartu dela, martxoan urte arteko tasa %0,9an kokatu baita, urtebete bat lehenago %2,0aren inguruan zegoen bitartean. Aitzitik, eraikuntzak %4,2ra biziagotu du bere erritmoa, zerbitzuek %1,8ko hazkundeari atxiki dioten bitartean. Jarduera adarraren arabera, deigarria da merkataritzak enplegua sortzeari eta finantza jarduerak galtzeari utzi diotela. Sortu diren lanpostu kopuru handiena arlo publikoari lotuta dauden jardueretan (hezkuntza eta osasungintza) gauzatu dira, baina baita jarduera pribatu batzuetan ere, hala nola informazio eta komunikazioetan, garraioan, ostalaritzan eta lehenago ere aipatu diren eraikuntzan eta manufacturretan.


Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak

	2018ko martxoa	2019ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	693.930	706.485	12.555
Industria manufakturgileak	174.641	176.314	1.672
Merkataritza	137.275	137.300	25
Osasun arloko jarduerak	91.808	94.514	2.706
Hezkuntza	72.150	75.118	2.968
Ostalaritza	64.637	66.662	2.026
Administrazio jarduerak	64.867	65.304	437
Eraikuntza	54.309	56.579	2.270
Lanbide jarduerak	55.178	56.513	1.335
Administrazio publikoa	47.544	48.328	784
Garraioa	40.835	41.959	1.123
Etxeko langileak	30.920	30.317	-603
Bestelako zerbitzuak	28.699	28.592	-107
Informazioa eta komunikazioa	21.966	22.978	1.012
Finantza jarduerak	18.090	18.106	16
Jarduera artistikoak	15.985	16.700	716
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.332	12.539	207
Ur horniketa	5.865	5.980	115
Higiezin jarduerak	3.924	4.035	110
Energia horniketa	1.847	1.822	-25
Erauzketa industriak	583	557	-25
Lurraldez kanpoko erakundeak	52	59	7

LANGABEZIA LANBIDEREN BULEGOETAN

Langabezia erregistratuaren jaitsiera bizkortu da 2019ko hastapenean

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Lanbideko bulegoek bildu dituzten azken datuen arabera, langabeziak martxoan beheranzko joerari eutsi ez ezik, jaitsiera erritmoa bizkortu ere egin zuen. Izan ere, martxoko tasa (%-7,2) azken zortzi hilekoetako handiena da. Horri esker, langabezia erregistratua 120.000 pertsonen azpian geratu zen 2019ko lehen hiruhilekoan, urte arteko aldakuntza tasa %-6,3an kokatuta. Langabezia bi generoetan murriztu bazen ere, indar handiagoz jaitsi zen berriro gizonen artean emakumeen artean baino. Hala ere, bien arteko aldea oso nabarmen gutxitu da aurreko epealdietako egoeraren aldean, zeren eta garai hartan gizonen aldakuntza tasa negatiboak bi zenbakikoak izatera iritsi baitziren.

Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak



Kolektibo nagusi guztiek portaera ona erakutsi zuten, salbuespen bakarra gazteak izan zirelarik, lanik gabeko biztanleria talde horretan berriro igo zelako. Zehazkiago adierazita, talde horretako langabezia %10,7 handitu zen martxoan eta %9,5, berriz, lehen hiruhilekoan. Beste aldetik, langabe atzerritarren kolektiboak beherakada garrantzitsua (%-9,1 martxoan eta %-7,4 hiruhilekoan) eta bertokoena (%-6,9 martxoan eta %-6,1 hiruhilekoan) baino handiagoa lortu zuen. Langabezia erregistratuaren bilakaera positiboa sektore guztietan haute-man zen, baina bereziki eraikuntzan nabaritu zen, %17,9ko beherakada lortu zuelako martxoan. Beste aldetik, industriak (%-7,1) eta zerbitzuek (%-6,8) jaitsiera garrantzitsuak eskuratu zituzten, baina eraikuntzaren tamaina iritsi gabe.

Langabeak

	2018ko martxo	2019ko martxo	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	127.164	117.952	-9.212
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	20.431	19.439	-992
Bizkaia	73.402	67.295	-6.107
Gipuzkoa	33.331	31.218	-2.113
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	55.090	50.474	-4.616
Emakumeak	72.074	67.478	-4.596
25 urtetik beherakoak	7.489	8.292	803
25 urte baino gehiago dutenak	119.675	109.660	-10.015
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.926	2.668	-258
Industria	14.976	13.914	-1.062
Erakuntza	10.087	8.284	-1.803
Zerbitzuak	84.138	78.415	-5.723
Lehenago lan egin dutenak	112.127	103.281	-8.846
Lehenago lan egin ez dutenak	15.037	14.671	-366
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.491	18.636	-1.855

INFLAZIOA



Inflazioa hiru hamarren igo zen otsailean

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa


Kontsumoko prezioen indizea (KPI) hiru hamarren igo zen EAEn pasa den otsailean eta urte arteko aldakuntza tasa %1,3an kokatu zuen. Gorakada horren atzean, erregaien eta elikagai fresko batzuen garestitzea dago, hala nola ortuariena eta lekariena. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioa oraindik egonkor dago %0,7an. Balio hori 2018ko hasieratik izan duen apalena da.


KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,3	1,3
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	3,9	0,7
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	4,6	0,5

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Petrolioak berriki izan dituen prezio igoerek, upela jadanik 70 dolarren inguruan saltzen baita, talde inflazio-gileena garraioa izatea eragin zuten, talde horrek aurreko hilekoetan hazkunde tasa apalagoak jaso eta gero. Zehazkiago adierazita, erregaiei garestitzeak bi puntu eta hiru hamarrenetan igoarazi zuen talde horren urte arteko tasa, %1,1etik %3,4ra igarota. Era berean, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak ere ekarpena egin zioten inflazioaren igoerari, beren aldakuntza tasa puntu bat eta hiru hamarren igo zelako, %1,5era iritsi arte. Aitzitik, jaitsierak eskuratu ziren etxebizitzan, puntu bat eta erdi gutxitu baitzen %1,1ean kokatu arte, argindarraren merkatzearen ondorioz; aisia eta kultura, balio negatibotik (%-1,5) jarraitu baitzuen talde horrek, pakete turistikoaren prezioen igoera 2018ko otsailekoa baino txikiagoa izan zelako; eta azkenik, komunikazioen taldean, puntu bat baino gehiago apaldu zelako, telefoniaren salneurriak izan zuen bilakaeraren ondorioz.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko otsaila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,3	1,1	1,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,5	1,4	1,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,4	1,2	3,9
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,8	1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaia	1,1	0,9	2,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,6	0,6	0,4
Medikuntza	0,1	0,9	0,9
Garraioa	3,4	1,8	1,2
Komunikazioak	1,6	1,5	-2,1
Aisia eta kultura	-1,5	-1,6	0,7
Hezkuntza	0,8	1,0	0,0
Jatetxeak eta hotelak	1,8	1,8	1,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,4	1,4	1,6

Iturria: INE eta Eurostat.

EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Europako baikortasuna berriro apaldu da

Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak argitaratzen duen ekonomia sentimenduaren indizeak seinalatzen du Europar Batasuna galtzen ari dela azken urteetan izan duen baikortasuna, baina oraindik egoera onean dagoela. Hain zuzen ere, adierazle horren martxoko datua 105,0an kokatu zen, otsaileko emaitza baino lau hamarren beherago, baina oraindik estatistika horren batez besteko historikoa, 1990ean hasitakoa, seinalatzen duen 100eko balioaren gainetik. Alemania da emaitzarik onena jasotzen duten herrialdeetako bat (106,6), baina industriak herrialdearen emaitza kaltetu du. Frantziak (101,0), berriz, mesfidantzazko prozesuarekin bat egin zuen, nahiz eta azken hilekoetan nahiko egonkor portatu den. Bi herrialde horietan, eraikuntzak eskaintzen ditu igurikimen onenak, batez besteko historikotik oso goitik kokatuta baitago.

Ekonomia sentimendua Alemanian




Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Erresuma Batuak ezustea eman du martxoako datuarekin (100,8), aurreko hilekoaren emaitzaren aldean puntu bat baino gehiago hobetu delako, azken hau (99,2) lehen datu negatiboa izan baitzen sei urteko epean. Europar Batasuna uzteko bidez dagoen akordiorik ezak ziurgabetasuna eragin du, bereziki zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan eta kontsumitzailearen konfiantzan nabaritu dena.

Italiako egoera (101,0) Frantziarenaren antzekoa da, zeren eta adierazleak motteltze bizia ezagutu ondoren, azken hilekoetan 100etik hurbil dagoen balio batean egonkortu baita. Herrialde horretan, azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzaren eta eraikuntzaren bilakaera ona. Aitzitik, industria, zerbitzuak eta kontsumitzailearen konfiantza beren batez besteko historikotik oso hurbil daude.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**


Azkenik, portaera orokor horretatik aldentzen den herrialdea Espainia da, neurri batean ez duelako halako apaltze bizirik ezagutu eta, beste aldetik, martxoan azken lau hilekoetako baliorik gorena (106,7) jaso zuelako, Alemaniaren parean kokatuz. Osagai guztiak batez besteko historikoaren gainean daude eta emaitzak bereziki onak dira txikizkako merkataritzan eta eraikuntzan, kontsumitzailearen konfiantza altua den bitartean.

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

ELGEk beherantz zuzendu ditu bere ekonomia aurreikuspenak

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomia %3,3 haziko da 2019an eta datorren urtean hazkunde tasa zertxobait igoko da, %3,4an kokatu arte. Aurreikuspen berri horiek jaitsiera txikia ekarri diete 2018ko udazkenean argitaratu zirenei. Beherantzko zuzenketa horren oinarrian, orokorra baita 2019an eremu geografiko guztietan, Txinaren kaltebertasuna, Europako ekonomiaren ahultasuna, merkataritza eta manufaktura narriadura, eta esparru politikoan eta finantzarioan bizi den ziurgabetasun handia daude.


ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	3,3	3,4	-0,2	-0,1
AEB	2,9	2,6	2,2	-0,1	+0,1
Eurogunea	1,8	1,0	1,2	-0,8	-0,4
Alemania	1,4	0,7	1,1	-0,9	-0,3
Frantzia	1,5	1,3	1,3	-0,3	-0,2
Italia	0,8	-0,2	0,5	-1,1	-0,4
Erresuma Batua	1,4	0,8	0,9	-0,6	-0,2
Kanada	1,8	1,5	2,0	-0,7	+0,1
Japonia	0,7	0,8	0,7	-0,2	=
Txina	6,6	6,2	6,0	-0,1	=
India	7,0	7,2	7,3	-0,1	-0,1
Brasil	1,1	1,9	2,4	-0,2	=

Iturria: ELGE.


AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Beheranzko zuzenketa esanguratsuenak Eurogunean gertatu dira. Hazkunde aurreikuspenen murrizketa handiena izan duten herrialdeak Alemania eta Italia izan dira. Orobat, Erresuma Batuan, Kanadan eta Turkian igurikimenak murriztu dira.

ELGEK munduko ekonomiarentzako arrisku handiak daudela baieztatu du. Ekonomia nagusi bateko narriadura bizi batek munduko jardura kutsatuko luke, batez ere finantza merkatuetan eragina izango balu. Erakunde horrek akordio aldeaniztunak eta politika koordinatuak gomendatzen ditu arriskuak mugatzeko. Halaber, ez du ahaztu Eurogunean egiturazko erreformak ezarri behar direla produktibitatea eta ekonomia hazkunde sendoa handitzeko.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017	2018			
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,9	2,8	3,0	3,1	2,9	2,6	2,4
Familien kontsumoa	3,0	2,6	2,9	2,9	2,6	2,3	2,6
Administrazioaren kontsumoa	2,4	1,7	2,7	2,6	2,0	1,2	0,8
Kapital eraketa gordina	3,3	4,1	3,7	3,7	4,8	4,0	4,1
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	3,0	3,0	2,5	2,6
Esportazioak	4,7	3,0	6,8	6,7	2,9	2,2	0,3
Inportazioak	4,8	3,0	6,9	6,4	3,1	2,1	0,6
Lehen arloa	6,8	2,3	-2,7	-3,0	0,8	-4,6	17,1
Industria	3,1	2,1	3,5	3,7	3,1	1,9	-0,2
Eraikuntza	3,8	4,3	4,0	2,7	4,1	4,8	5,6
Zerbitzuak	2,7	2,9	2,7	3,1	2,8	2,7	2,9
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	2,9	3,1	2,9	2,6	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6	2,5

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019				2019	2020
	I	II	III	IV		
BPG	2,1	2,3	2,2	2,2	2,2	2,0
Barneko azken kontsumoa	2,0	2,2	2,0	2,1	2,1	1,9
Familien kontsumoa	2,2	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	1,3	1,5	1,6	1,9	1,6	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,5	3,7	3,5	3,5	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,4	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,3	-0,3	-0,3
Lehen arloa	-9,9	-8,5	-9,9	-8,6	-9,2	-1,5
Industria	1,1	1,9	1,8	2,0	1,7	1,9
Eraikuntza	4,5	4,0	3,7	3,4	3,9	2,7
Zerbitzuak	2,6	2,6	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,4	2,3	2,2	2,3	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,1	2,0	1,9	1,9	1,7
Enplegua	1,7	1,6	1,6	1,4	1,5	1,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
BBVA	2,7	2,3	Laboral Kutxa	2,4	—
Funcas	2,7	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,1	2,0
Confebask	2,5	—	CEPREDE	1,9	1,9

Iturria: CEPREDE (2019ko martxoa), BBVA (2019ko otsaila), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko abendua) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,0	2,6	3,1	2,9	2,6	2,5	2,3
Kontsumo pribatua	2,5	2,3	2,7	3,0	2,3	2,0	2,0
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,6	2,2	2,0	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	5,2	3,9	7,5	5,3	4,4
- Aktibo finko materialak	5,1	5,8	5,6	4,1	8,4	5,9	4,8
- Eraikuntzan	4,6	6,2	4,8	5,8	7,0	5,7	6,3
- Ekipamendu ondasunetan	6,0	5,4	7,0	1,9	10,6	6,3	2,8
- Jabetza intelektualaren produktua	3,5	2,1	3,1	2,9	2,3	1,5	1,9
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	2,9	3,3	3,1	3,3	2,7	2,5
Esportazioak	5,2	2,3	4,2	3,8	2,6	1,7	1,0
Inportazioak	5,6	3,5	5,4	4,8	5,1	2,3	1,7

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,1	2,0	IEE	2,1	—
Axesor	2,3	1,9	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,4	2,0	Repsol	2,2	2,1
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,1	2,0
CaixaBank	2,1	2,0	Solchaga Recio & asociados	2,2	2,0
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,0	1,9	BATEZ BESTE	2,2	1,9
Cemex	2,2	2,0	Gobernua (2019-01)	2,2	—
CEEM-URJC	2,1	1,9	Espainiako Bankua (2018-12)	2,2	1,9
CEPREDE-UAM	2,3	2,1	Europar Batzordea (2019-02)	2,1	1,9
CEOE	2,2	1,8	NDF (2019-01)	2,2	1,9
FUNCAS	2,1	1,8	ELGE (2018-11)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-02)	2,2	1,9

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,2	2,9	2,5	2,6	2,9	3,0	3,0
Txina	6,9	6,6	6,8	6,8	6,7	6,5	6,4
Japonia	1,7	0,8	2,4	1,4	1,4	0,2	0,3
Kanada	3,0	1,8	2,9	2,2	1,7	1,9	1,6
Europar Batasuna	2,4	1,9	2,7	2,4	2,2	1,8	1,4
Eurogunea	2,4	1,8	2,7	2,4	2,1	1,6	1,3
Alemania	2,2	1,4	2,8	2,1	2,0	1,2	0,6
Frantzia	2,2	1,5	2,8	2,2	1,7	1,4	1,0
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,6	1,3	1,4	1,6	1,3
Italia	1,6	0,9	1,7	1,4	1,1	0,6	0,0
Herbehereak	2,9	2,7	3,1	3,2	3,0	2,3	2,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,4	2,0	1,8	2,2	3,7	3,7
Japonia	0,7	0,4	0,7	1,0	2,4	2,4
Kanada	1,4	1,7	1,7	2,0	5,8	5,9
Europar Batasuna	1,4	1,5	1,6	1,7	—	—
Eurogunea	1,2	1,4	1,3	1,5	7,8	7,6
Alemania	1,0	1,5	1,5	1,6	4,9	4,8
Frantzia	1,3	1,3	1,3	1,5	8,7	8,5
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,0	2,1	4,1	4,2
Italia	0,1	0,6	0,9	1,2	10,5	10,4
Espainia	2,2	1,9	1,3	1,5	—	—
Herbehereak	1,6	1,6	2,2	1,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.